

20190620 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2019/06/20,

Ikusita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 326. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa.

Eman zaizkidan ahalmenak erabiliz:

ERABAKI DUT:

Lehena.- Kontratazio Organoa Alkatea, edo eta bere kasuan delegazioz Tokiko Gobernu Batzarra denean, Kontratazio Mahaiaren osaera hau izango da:

Presidentea: Unai Erroitzenea Gamio edo eskuordetzen duen pertsona.

Lehen mahaikidea: Eider Lasarte Santa Cruz batzarkidea edo eskuordetzen duen pertsona.

Bigarren mahaikidea: Olatz Juntorena Aizpurua batzarkidea edo eskuordetzen duen pertsona.

Hirugarren mahaikidea: Udaleko Idazkaria.

Laugarren mahaikidea: Udal kontuhartzailea edo eskuordetzen duen pertsona.

Bostagarren mahaikidea: Udal Kontratazio Teknikaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Seigarren mahaikidea: Errenta saileko teknikaria.

Idazkaria: Nagore Miner Santa Kruz (ahotsa izango duena baina ez boto eskubiderik) edo eskuordetza

Besteak: kasu bakoitzean gaiaren arabera, beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie, ahotza izango dute baina ez boturik bere jardueran.

Bigarrena.- Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea Kontratatzaileraren Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Unai Erroitzenea Gamio auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Nagore Miner Santa Kruz udal idazkariordea delegatua naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: auzo alkatea. Sinatua: udal idazkariordearen delegatua.

Jakinaren gainean egon zaitezten eta ondorioak izan ditzan adierazten dizut.